

Kikunbera etxea, arrazionalismoaren labarretan kolokan



Sarrerako hesiaren
xeheetasuna.
Argazkia: Anartz Ormaza

Bermeotik Mundakarantz abiatzen den errepedearen ertzean dago Kikunbera, Fernando Arzadun arkitekto bermeotarrak 1929an proiektatu zuen gurasoen enkarguz. Aitzineko proiektuan “Etxe-ontzia Bermeon” zen erakin hau, [famiabakarreko etxebizitzetan euskal arrazionalismoaren adibide bakarrenetako dugu](#).


Egin zen garaian zuzenean itsasora ematen zuen itsaslabar malkartsuaren gainean kokatua bazegoen ere, egun merkataritza-portua dugu etxearen eta itsasoaren artean, haren ontzi-izaeraren kalterako. Hala ere, leku paregabean kokatuta, Bermeoko portuaren badiaren ikuspegi apartak daude bertatik.

Sarbidea Mundakarako bidetik egiten da, puntu gorenetik. Arzadunen erabakietan garrantzitsuenetako bat, etxea errepidetik ahalik eta gehien aldentzea izan zen, eraikina orube malkartsuan era isolatuan ezartzea alegia. Etxearen eta errepedearen arteko bereizketa, errepedea bera eta garajea lotzen dituen eta lorategiaren gainetik igarotzen den zubiaren bitartez indartzen da. Hori horrela, garajea kokaturik dagoen solairua ia gorenekoa dugu, laugarrena, hortik gora talaia baino ez baitago. Gainerako programa guztia puntu horretatik behera garatzen da: hirugarren solairuan zerbitzuak eta terraza, eta bigarren solairu printzipala, noblea, egongela eta logelak.

Oinezkoen sarrera nahiko trangua da, goiko lorategitik hasi eta beheko lorategiko maila bilatzen duena, solairu nagusiko harrera aurkitzeko asmoz.

Alde batetik eraikinaren formari, eta bestetik, planta bakoitzaren antolaketari so eginez gero, [eraikuntza hala etxea nola ontzia izan daiteke](#): talaia, itsasoa behatzeko dorrea, masta eta guzti, proiektuaren grafiak adierazten duen moduan; estalki plano irekia; planta nagusiaren egituraketa, korridore zentral baten inguruan antolatuta, ganbarote-planta baten eran eta biribilgune erdizirkularrean bukatzen dena... guztiak itsasontziaren itxura bilatzen duten ezaugarriak. Osagarri moduan baranda apaingarriak, masta, profil mailakatuak... guztiak ontziaren ideia indartzeko. [Itsasontziari eginiko omenaldia](#)

Gako-hitzak:
etxe-ontzia,
arrazionalismoa,
Mugimendu Modernoa



Anartz Ormaza ° Inhar Agirrezabal °



Kikunbera (ein)! Bermeon uretara buruz behera jauztean omen da eta esaera hau izentzat hartzen du etxe honek. Bertakoan artean itxura ezohiko eta deigarriarengatik ezaguna. Euskal Herriko arrazionalismoaren adibide ahaztuetako bat dugu.

omen da, forma isolatu eta perfektu gisa. Arzadunek ariketa formal egiten du, fatxadak orientazioak kontuan hartu gabe moldatzen dituelarik (1).

Kikunbera ez da eraikin-ontzien adibide bakarra euskal arrazionalismoan: hor dugu Donostiako Klub Nautikoa, besteak beste. Hala ere, formaren erabileraren aldetik, kontzeptio guztiz kontrajarriak dituzte bi eraikinek: bermeotarra konpaktua da, multzoa, bolumen kubikoa orubeari ainguratua harrizko zokalo sendoz, ia gotorleku. Donostiarra, aldiz, arin, leun, horizontal, ireki, orubearrekin kontaktu urrian, zutabe finen bidez airean balego bezala.

Zenbait iturriren arabera, Arzadunek Kikunbera etxeari itsasontzi baten egitura arkitektonikoa eman nahi izan zion, etxea Bermeoko tradizio historikoarekin uztartzeko, herria beti egon baita portuari eta itsasontzietan lotua (2). José Ángel Sanz Esquideren arabera, ordea, [itsasontziaren irudia, 20ko hamarkadan arras erabilia izan zena, Arzadunek Bermeon esplizituki hartuko du *Art-Decóit* datozen forma eta koloreez baliatuz](#), garaiko arkitekturan oso eztabaidatua zen kezka baten irudi gisa: arkitektura ariketa autonomotzat edo egite sozialtzat hartzea (3).

Itsasaldia European


XX. mendearen hasieran zientzia eta teknologiaren bidetik norbanakoaren bizimoduaren kontzeptio berriak hedatzen hasi ziren Europako gizartean. Konbultsio horren barrenean, A. Loos (4) arkitekto vienna saiatu zen jendartearen zabaltzen ari zen modernitatearen kantu berriak arkitekturara ekarriak izateko behar ziren joera eta sentsibilitate-aldaketak seinaltatzen eta praktikan jartzen. Ez pentsa, ordea, mundu-ikuskeraren berrirako igarobidea modu bateratuan uarratu zenik, zabaldu berri ziren bide itxaropentsuetan korronte ugari sortu ziren, itxuraz, leku berean itsasoratze asmoz zihozten ibaitan: *Art Nouveau* Belgikan eta Frantzia, *Modern Style* Ingalaterran, *Secession* Austrian, *Jugendstil* Alemanian...

(1) MENDIENTA, 1990

(2) Datuak www.hiru.com

(3) SANZ, MOYA eta SAENZ DE GOEBEA, 1986

(4) LOOS, 1910



Irdia: Anartz Ormaza eta Inhar Agirrezabal

A. Loos eta O. Wagner arkitekto austriarren pausoei xerka iritsi ziren bi sortzaile nagusietakoak: W. Gropius eta Le Corbusier; lehengoa 1919an Weimarren urtean martxan jarritako lehen arkitektura-eskola ofizialaren —Bauhaus eskolaren (5)— sortzailea eta hasierako garaiotan zuzendari izandakoa, eta bigarrena, bere jardun teoriko eta praktikoa eskertu, mundu mailako arrazionalismo arkitektonikoaren erakusle aipagarria izango zena (6).

Mugimendu modernoaren abiatze-saltsa horren barrenean txertatzen da arrazionalismo arkitektonikoa, eta honako hauek dira haren ezaugarri nagusiak: altzairua edo hormigoia, material eta teknika berri gisa, izango dira egitura material nagusien eta eraikinaren bizkarrezur, horma arinen erabilerekin batera; forma geometriko sinpletarako joera, irizpide ortogonalei jarraituz, eta kolorearen zein xehetasun konstruktiboen erabilera desagertuko diren gainezarritako apaindura eta dekorazioen orde; espazio arkitektonikoaren kontzeptzio dinamikoa, formaren eta funtzioaren arteko harreman estua; eta asmo sozial sendoa oinarrian (7).

Ezaugarri horietako zenbat aurki genitzake Kikunberan? Forma geometriko sinpleen erabilera bai, jakina. Baita apain-duraren orde kolorearen erabilera, gorria kasu honetan. Arlo estetikoan bai, ados. Formaren eta funtzioaren arteko harreman estuari dagokionez ordea... Ontzi izango ez den zer bati (etxea baita) forma hori ematean, benetan forma al da funtzioaren jarraitzaile? Eta zer esan asmo sozialari buruz?

Aipatutako teorizazioa, eta justizia zein gizarte guztiaren ongizatearen bidean, aldarrikatutako asmo eraldatzaileez gandi, printzipio formal eta tekniko berritu gisan hedatu zen joera arrazionalista Europa osoan zehar, 1925 eta 1940 artean, hein handi batean, lan isolatuen edota metodo konstruktibo berrien erabilerari esker. Hedapen hori, maisu handien eskutik garatu zen, tokian tokiko arkitektoekin elkarlanean mesfidantza ofizial eta akademikoak saihestuz. Printzipio orokor gisan, esan genezake ezen arrazionalismo arkitektonikoa gai-

(5) MENDIGUREN, 2009

(6) Besteak beste, "forma primarioak argi eta garbi ikusi eta baliozta daiteke ederrak direla", 1923. Le Corbusier

(7) Gropius, Mies van der Rohe eta Le Corbusier bat zetozen oinarritzko ideietan: industrializazioak, modu arrazionaleraz erabiliz gero, injustizia sozialetik askatuko zituela herriak

naseta dagoenaren arazketa moduko bat dela, oparotasunaren kontrako erreakzioa, egoera bakoitzerako praktikoa, esentzial edota funtzional dena bakarrik utziz. Zabalkunde horretan, ordea, haren arrakasta ahalbidetu zuten kontzeptzio formal eta tekniko berritzaileek esentzial edota funtzional gisan zituen asmo sozialak estali, eta ahantzarazi, zituzten.

Hara, hona hemen aurretik botatakoaren erantzuna... Arrazionalismoa bermeotarraren belarrietara beldu orduko, jada asmo soziala galdua zuen hortaz...

Olatua Euskal Herrian

Hedapen horren lehen islak Euskal Herrian bi hitzaldi hauek izan ziren: batetik, Suitzako La Sarraz gazteluan ospatu zen lehen CIAM kongresura gonbidatua izan zen F. García Mercadál arkitektoak (1886, Zaragoza) Bilbon emandakoa 1928ko maiatzaren 17an (8), eta bestetik, Donostiako Ateneoan lau egun geroago, Le Corbusier-ek Madrilera egun batzuk lehenago egindako bisitak giroa; eta horren harira ulertu beharko genituzke *E/ Liberal* aldizkarian Mercadál berak idatzirik hitzok: "Merezi duen arkitektura-kontzeptzio orok gizarte-kontzeptzioa ere eskatzen du, eta arkitektura arrazionalistarena ez da, inolaz ere, burgesa, arkitekto burgesek asmatu badute ere. Egia esan, mundu guziko Neguriak mehatxu bikoitza ezagutzen ari dira. Badirudi ezen estetika berri batek eta gizartearen antolaketa berri batek mehatxatzen dituztela".

Ez dakigu Arzadun (arkitekto burgesa bera ere) García Mercadalen hitzaldian entzule egon zen ala ez... Bai, ordea, Kikunberak ez duela antzekorik garai hartako Negurin... ez estetikari dagokionez, bederen. Zeren bestela, arkitekto burgesak familia burgesentzat egindako etxebizitza izanda, holakoak Negurin nabi beste!

Jada, hurrengo urtean ospaturiko CIAM II kongresura, bi euskal arkitekto hurbildu ziren: J. M. Aizpurua eta L. Vallejo. Aizpurua Donostiarra, Labayenekin batera Donostiako Klub Nautikokoaren eraikinaren sortzaile, arkitektura modernoaren

(8) Origen y estado de la arquitectura moderna. izenburuaz.

eta arrazionalismoaren printzipioak gurera ekartzeko asmoz saiakera kritiko ugariaren erantzulea izan zen, besteak beste, “Arkitektura Espainian ez da existitzen; ez dago arkitektoirik, pastelgileak baizik” eta “Burgesak ikusten duena exijitzen du. Zergatik ez zaie bizitzen irakasten? Bepizkunde eran, euskaldun tradizionalan, barrokoan... proiektatzen duen arkitekto batek burgesak engainatzen ditu; formari dagokionez ondo egiten du; ez, ordea, arimari dagokionez (...) Adarjotzaileak!” adierazi zuen 1930ean (9).

Arzadunek burgesei bizitzeko irakasteko saiakera egin beharrean, ez zuen, bada, bere familiaren enkargua zela-eta, bere ardurak praktikan jartzeko aukera hartu? Bebarbada mugimendu berria zabalitzeko modu bakarra zen, bere burua (eta bere familia) adibide bihurtzea... bere burges baldintzez baliatuz bazen ere...





Hori horrela izanda edo ez, argi dago ordutik jarauntsi dugun kezka eta gainditu gabe dugun arazo dela hau... gaur egunean ere pastelgilez beteta dugula arkitektoen lanbidea... zenbat eta zenbat “burges” (eta burgesak ez direnak ere) ari garen engainatzen... arima gabeko etxeak nonahi...






W. Gropius-ek berak Bilbon, 1930eko azaroaren 10ean, eta Donostian hurrengo egunean, “Arkitektura funtzionala” izen-burupean eskainitako hitzaldia aprobetxatu zuen arkitektoek, kontzeptio arrazionalisten bidetik, eragin zezaketen eraldaketa soziala gurean aldarrikatzeko; lehen aipatu bezala, teorizazio marduletatik harago hedatu ez zen eraldaketa. Eraikitako proiektuetan presentzia urria izan bazen ere, lan teoriko horrekin jarraitu zuten zenbait urtetan zehar; besteak beste, *Propiedad y Construcción* aldizkaria izan zen arrazionalismoaren aldeko propaganda lokal eraginkorra egiteko erabili zen tresna, eragile nagusien artean Tomas Bilbao arkitektoa nabarmendu zelarik.

Gropius Bilbo aldera hurbildu zenerako Kikunbera dagoeneko bukatzean...

Urri izanagatik ordea, ezin aipatu gabe utzi, batez ere Donostian eta Bilbon, arkitektura arrazionalak Euskal Herrian utzitako fruituetariko batzuk. Donostian, Bermeoko etxearekin duen harreman estuan, Aizpurua eta Labaien *Klub Nautikoa* aurki genezake, baita J. R. Aldayren *Kontserbatorioaren egoitza* (1931) ere, Fernando Arzadunek berak 1933an eraikitako *La Equitativako* etxeaz gain. Bilbon, berriz, Zuazok egindako Bilboko posta-etxea (1927), arkitektura arrazionalista baino gehiago arrazionalduna hau; Pedro Ispizuaren *Luis Briñas eskolak* (1933), eta Luis Vallejo eta Juan de Madariagak elkarrekin egindako *Bilboko S.S.L.ren eraikuntza* (1933).

Bermeok ordura arte izan bazuen izen handiko arkitektoirik herriko seme-alaben artean. Teodoro Anasagasti arkitekto entzutetsua bermeotarra izan zen, baita bertako udal-arkitektoa ere 1907 eta 1910 urteen artean. Hamarkada pare bat geroago agertu ziren herrjko beste bi arkitekto gazteen eskutik, Ispizua eta Arzadunen eskutik, Bermeok aipamen berezia merezi du Euskal Herriko arrazionalismoari zabalduetako leihon honetan. Urte batzuk lehenago, Anasagasti udal-arkitektoa zen garaian, Secundino Zuazok, ukitu arrazionalistaz, herrian eraikitako *San Jose ikastetxea* (1909) eta *Itsasoko Eskolaren* (1917) ondotik, Ispizua *Bermeoko batzokia* (1933) eta *Hormaza kontserba-lantegia* eraiki zituen, eta besteak, Arzadunek, *Kikunbera*.





Altxaerak eta altxaera zatia. Arkitektura artxiboa. 30garren urteak Euskal Herrian, EHAEO



Bermeoko portutik ikuspegia.
Argazkia: Anartz Ormaza

Arzadunek, hortaz, ez zuen bere garaiari zegozkion arkitektura korrante berrien bidetik abiatzeko aukera alferrik galdu. XX. mendeko 20ko hamarkadan Europa aldetik zetozen arrazionalismo arkitektonikoaren haize berriak gurera ekartzeko saiakera egin zuen, inguruotan presentzia hutsal samarra izan zuen ko-rrontearen ia ahantzitako eraikina jasoz.

Kikunbera! buruz behera uretara jausi... mendi malkartsutik barkaitzaren kontra talka! Hiri bakoitzak aurre egiten dion desertuarekiko bartzzen omen du bere izena (10)... itsasokoentzat etxe, herrikoentzat ontzi. Ez etxe, ez ontzi; bai ontzi, baita etxe ere.

Bibliografia eta oharrak

- (1) MENDIENTA, J. (1990): Arkitektura Artxiboa. 30garren urteak Euskal Herrian, EHAEO eta Eusko Jaurlaritzak Kultura Saila [ISBN 84-7542-853-3].
- (2) <http://www.hiru.com/> web orriaren atzituak datuak
- (3) SANZ, J. A.; MOYA, A. eta SAENZ DE GOEBEA, J. (1986): *Arte y artistas vascos de los años 30, entre lo individual y lo colectivo*, Gipuzkoako Foru Aldundia [ISBN 84-7907-000].
- (4) LOOS, ADOLF (1910): *Ornamento y delito*, 1908, edota "Kultura deritzot norbanakoaren barne eta kanpo orekari, pentsaera eta ekintza razonable bat posible egiten duen bakarrari", *Architektur*.
- (5) Ezin ahaztu bere sorreratik Bauhaus eskolan ezarritako printzipio nagusia: formak funtzioari jarraitzen dio.
- (6) Besteak beste, "forma primarioak argi eta garbi ikusi eta baliozta daiteke ederrak direla", 1923, Le Corbusier.
- (7) "Gropius, Mies van der Rohe eta Le Corbusier bat zetozen oina-rrizko ideietan: industrializazioak, modu arrazionaleraz erabiliz gero, injustizia sozialetik askatuko zituela herriak"; *Lur entziklopedia*, Euskal Herria, Artea; edota, "Arteak ez du inoiz gehiago gutxi batzuen pla-zererako izan behar, masen bizitza eta zoriona baizik", *Arbeitsrat für Kunst* manifestu, 1919.
- (8) *Origen y estado de la arquitectura moderna*, izenburuaz.
- (9) AIZPURUA, J.M. (1930): *Gaceta Literaria*, "Noiz izango da Arkitektura?" artikulua.
- (10) CALVINO, I. (1995. 2.ed): *Las ciudades invisibles*, Ediciones Minotauro, Bartzelona [ISBN 84-450-7223-4].



* Anartz Ormaza eta Inhar Agirrezabal arkitektoak dira.